

PRINTZE TXIKIA GERRAN

Karlos del Olmo

Gerrako pilotu

Antoine Saint-Exupéry
Itzultzailea: Josu Zabaleta
Literatura Unibertsala bilduma
Alberdania&Elkar

Bi milagarren urtearekin batera ospatu zen Saint-Exupéryren jaiotzaren mendeurrena. Idazleak ozen aldarrikatu zituen bere uste-itxaroak hainbat liburu gogoangarritan. Josu Zabaleta hots handikoaren ezertarako eskuak hizpidea eman dio mende berrian, euskaraz azal dezan zer sentitzen zuen gerrako pilotu batek.

Bestelako baliorik ez balu ere, hasi bidez, gaur egun oraindik erakargarri gertatuko lirateke munduko gauzak airetik ikusten zituen pilotu-gudari-idazlearen letrak. Mundua hodeietatik bestela ikusten delako. Gatazka garaian bizi garelako. Eta istiluan egonda, erraza da arerioari gizatasun ezaugarriak kentzea. Antoinetik liburu honetan erakutsi gura du, besteak beste, aliatuak alemaniarren gainetik zeudela. Giza aberearengan batzuek gizakia ikusten omen zuten, besteek, ordea, aberea. Hala sinesten zuen, bederik, idazleak.

Halako ukitu inpresionista eransten du Saint-Exupéryk. Gerra garaiotarako etika du kezka, kontakizun hariaren gainetik. Konta estilo trinkoa, euskal literaturan Orixe buru izan zuen joeraren antzekoa. Zabaletak berak sarreran dioenez, idazkera trinkoa, guztiz soildua, elipsiz betea, aszetikoa. Gaiak: garaipena, porrota, garailea, garaitua, obeditzea, matxinatu beharra, sufrimendua, itxaropena, biziraupena, herio zitala... Gai zaharrak, betiko leloak, bai, baina, oi, zeinen bihotz urragarri horrelako peleen erdian direnentzat! Gudaren epika halako bat.

Antzinaroko heroien antzera, gerra ekintzan hil zen Antoine. Ba ote da destino loriatsuagorik pilotu batentzat hegazkina lagun itsas zabalean betiko aienatzea baino? Gerra ekintzan hil zen, gogoan zuen Frantziaren alde. Nazio hura, apika, benetakoarekin bat ez etorri arren. Ez zen orduko gizartean agintzen zutenekin oso eroso bizi, liburuan agertzen duen ikuspegi humanista —gerraren ingurukoei humanismoaren etiketa itsasterik egonez gero— ez zelako lar ondo egokitzen De Gaullek eta beretarrek bultzatzen zutenarekin. Idazleak ez zuen onesten frantsesak bi talde elkarren etsaitan bereizteko asmoa.

Itzulpenari doakionez? Itzulpengintzako Euskadi Saria irabazitako Josu Zabaletaren lanik gozatu ez duenak aukera berdingabekoa du EIZIEk eta Jaurlaritzak bideraturiko Literatura Unibertsala bildumako ale hau. Adituen arabera, itzultzaile onak garden behar du, idazlearen estiloa desitxuratu barik. Josuk ederto batean betetzen du araua. Baina itzultzailea alde idazle ere den aldetik, kontraesan moduko bat jazotzen da: idazlearen estiloari begirunea erakutsirik, Josuk ukitu berezia eransten die itzulpenari, zenbateraino eta bere lanak ezagutzen dituenak testua hartu eta itzultzailea nor den ez dakiela ere, harena dela erraz asmatu ahal izateraino.

Liburuaren amaieran kredo simple bat agertzen da, idazlearen pentsaeraren isla. Bizitzaren ordena gauza guztien oinarritzat jotzea. Irudi batean esatearren, zuhaitza —gizadia, gizartea...— ordenan dago, sustriak adarrak ez bezalakoak badira ere.

Liburuko pilotua gerran dago gizakiaren alde eta haren etsaien kontra. Baita bere buruaren aurka ere. Gudaren ohitura partikular bat gainerako guztien gainetik jartzearekin, herri jakin

bat besteen gaisetk ezartzearekin, arraza bat besteen gaisetk paratzearekin, pentsaera jakin bat besteen gaisetk ipintzearekin.

Azken buruan, gerra amaitzen denean, bizitza bera baino ez delako geratzen. Mina eta poza, biok biotara. Menderatuek, ordea, isildu egin behar izaten dute. Haziak bezala.